



Abadiño Talde Independienteak Independientes de Abadiano

Informazioa buletina. 2006ko Martxoan

BATZUK GUTAZ BALIATZEN DIRA, GURI LEPORATZEN DIGUTE

Orain ez egun asko, ABADIÑO KO TALDE INDEPENDIENTEAK gure udalerriko alkatearen kontra jarritako prebarikazio salaketa jaso zuten komunikabideek. Salaketa hori jartzeko erabakia denbora luzez hausnartu dugu gure taldearen barruan. Baina urte hauetan harrokeriz eta demokrazioaren oinarritzko arauen kontrako errespetu faltaz betetako jarrerak ikusi dizkiogu Alkate jaunari, eta azkenean, modu honetan jokatu behar izan dugu.

Salaketa horren aurrean, Gobernu taldeak, alkatea buru duela, boikota egitea, oztopoak jartzea eta gurpiletan egurrak sartzea leporatu dio Talde Independienteari.

Urte hauetan Udalean izan dugun jarrera zein den erakusteko eta Abadiño ko Udaleko egunerokoan boikota nola egin dugun hausnar ezazuen, lerro hauek aurkezten dizkizuegu.

1999. urtean zuek guztiok ABADIÑO KO TALDE INDEPENDIENTEA aukeratu zeneuten arte eta Udalbatzarrean sartu zen arte, Javier Uriarte alkateak erabat ahaztuta zeukan Matiena auzoa. Eta hori esatea ez da demagogia egitea. ABADIÑO KO TALDE INDEPENDIENTEAK beti erakutsi eta frogatu ahal izan du salatu duen duen guztia, bere kritika arrazoitzen duen dokumentazioarekin. Azken urte hauetan izan dugun jardunaren datu batzuk ikus ditzagun:

- ❑ 1999. urtera arte, Udalaren Matienako bulegoak 09:00etatik 11:00ak arte eskaintzen zuen zerbitzua, eta ez egunero. Matienako bulegoak Udalaren beste bulego guztien ordutegi berbera izatea proposatu zuen. Eta gure eskaeraren ostean, bulego hori 09:00etatik 13:00etara zabaltzen da. Ordutegi hori oraindik ez da nahikoa, Zelaietakoak 14:00ak artekoa duelako, baina zerbait lortu da.
- ❑ Matienan Correos postetxearen bulego bat jartzea proposatu genuen. Alkate jauna ez zegoen ados proposamen horrekin, Correosetik esan ziotelako, Matienan bulego ipiniz gero Zelaietakoak kenduko zutela. Alkateak bi bulegoak lortzeko lan egitea gustatuko litzaziguke.
- ❑ Kioskoaren Plazak hirugarren mundukoa ematen zuen, hain zegoelako hondatuta. Kioskoa konpontzea proposatu genuen, egurrezko aulkiak jartzea eta iturria aldatzea edo konpontzea, iturri publikoa baino gehiago txakurrek edateko putzua ematen zuelako.
- ❑ Udalean sartu eta handik denbora gutxira, Errogatiba jaia ospatzeko erretiratuei Urkiolan eskaintzen zaien bazkarira joan ginen. Badakizue zein izan zen ezustekoa? Erretiratuek menu bat zeukaten eta Udalbatzarreko kideek beste menu hobe bat. Horrekin ados ez geundela esan genuen, eta, ordutik aurrera, menua berdina da guztiontzat.
- ❑ Pino Plazan, Verin Plazan, Kioskoaren Plazan, Ikastetxean, Muntzaratzen eta beste hainbat lekutan umeentzako jostailuak jartzea proposatu dugu azken urte hauetan, eta beste zenbait kasutan, bizilagunei eskatu diegu proposamena haiek aurkeztea, guk eginez gero, ez litzatekeelako inoiz onartuko. Aurkeztutako proposamen horietako batzuk eginak daude, baina beste batzuk ez, jakingo duzuen bezala. Era berean, Pino plazako berdegunean, lehengo jatetxearen parean, umeen aisialdirako gunea jartzea proposatzen ari gara aspaldian, bizilagun batzuk egindako eskaerari jarraituta.

- Oraindik onartu gabeko Arau Subsidiarioen garapenean, zergatik izan ginen oposizioko taldeak (Batasuna eta gu geu), gehiengo orduan, Zelaietan dauzkagun lurak etxebizitza sozialetarako gorde behar zirela esan genuenak? Alkate jaunak ez zuelako gura. Horren harira, horren gai garrantzitsuaren inguruan galdera batzuk egin gura genizkioke Ezker Batuko jaunari. Non daude zure buruzagi Madrazo jaunak hauteskunde kanpainan agindutako Matienan laster egitekoak ziren eta Udalarekin hitzarmena lotzea baino behar ez zuten etxebizitza sozialak? Datorren urtean berriro ekarriko duzu, beste gezurren bat kontatzera? Zuk horretaz asko dakizu.
- Obra txikietarako zerga kentzea proposatu genuen. Hau da, gure etxebizitzan zerbait konpontzeko eskatu behar izaten dugun baimena lortzeko ordaindu beharrekoa kentzea eskatu genuen. Orain guk oztopoak bakarrik jartzen ditugula esaten duten horiek atzera bota zuten.
- Astolara sartzeko zubia ibilgailuei itxi beharko zitzaizela iruditzen zitzaigun, oso estua zelako eta oinezkoentzako arriskutsua zelako, eta hala proposatu genuen. Gaur guztiok ezagutzen duzuen adabaki hori dago.
- Gu Udalean sartu arte, Alkatea gutxi batzutan baino ez zen ikusten auzoan. Gaur, auzoko bizilagunak hartzen ditu ostiralero, zeregin horretarako jartzea agindu zuen bulegoan. Matienan egiten diren ekitaldi ia guztietan egoten da; auzoko kultur talde guztiei zentimo bat ere ez zaie falta; inoiz aurrekontu duinik izan ez duten jaiek, gaur behar den beste diru daukate, eta alkate jaunak sevillanak dantza egiteko beta ere hartu du inoiz. Benetan txundituta gaude aldaketarekin. Orain, norbaitek sinisten du ABADIÑOKO TALDE INDEPENDENTEA Udalean egongo ez balitz aldaketa hori gertatuko zatekeenik? Baina KONTUZ, Alkatea aldatu da eta orain Matiena bere bihotzean dago? Edo, guk uste dugun bezala, horrela jokatu behar du gure taldeak inork baino boto gehiago lortzen dituelako auzoan eta berak boto horiek nahi dituelako?
- Kale batzuk egoera tamalgarrian daudela eta horiek konpontzea ezinbestekoa dela esaten daramagu hainbat urte: Solaguren, San Andres, Juan Antonio Unzueta, eta galtzada-harria izateagatik eta ibilgailuak gaineratik pasatzeagatik hondatuta dauden kale guztiak, Verin ingurua, esaterako. Berak esaten duen bezala, hori guztia proposatzea ezer ez eskaintzea da? Ez, zer kontatzen dizuegun da arduratzen diena.
- Akerrak gure lorategietan bazkatzea atera behar izan genituen, eraikinetako beheko solairuetan baso-belarrak topatzeko arriskua zegoelako. Gaur, zerbait hobetu da, baina lorategiak ez daude guk nahi genituzkeen bezala, ezta urrundik ere.
- Hilean 9.000 euro ordaintzen ditugu haurtzaindegiko moduluak ordaintzeko, eta aldi berean, eskola zaharra jaustekotan daukagu. Noiz arte egongo gara ordaintzen? 2005. urte amaieran, urte amaierarako eskolako obrak amaituta iozango zirela zioen dokumentua jendaurrean aurkeztu zuen. 2006ko martxoan gaude, eta egoera lehengo horretan dago.
- ABADIÑOKO TALDE INDEPENDIENTEAREN borondatearen aurka, Zelaietako osasun etxea hartzen zuen eraikina bota zuten. Zergatik ez zuten eraikin hori erabili eguneko egoitza bezala, denbora baterako familiaren bat hartzeko edo beste edozein zerbitzutarako?
- Zergatik egiten zen haur parkea Zelaietan bakarrik eta ez Matienan? Gaur, zorionez, gure udal kudeaketari esker, bi herriguneetan egiten da haur parkea, eta trena jartzen da Muntzaratzeraino, auzo horretako umeak ere bertara joan ahal izateko.
- Bere garaian, gutuna igorri genion Bizkaiko Foru Aldundiari, Muntzaratzen eta Hiper Eroskiren sarreran semaforo bana jar zezan. Ez ziguten jaramonik egin. Auzoko bizilagun bat kamioi batek harrapatuta hil behar izan zen eta auzo guztiak manifestazioa egin behar izan zuen, Eroskin semaforoa jartzeko. Zertan ari zen bien bitartean Gobernu Taldea? Basurtun gertatu zen ezbeharrak hemen ere gertatzea behar da Muntzaratzen ere semaforoa jartzeko?
- Herriko ikastetxe publikoetako ikasleen testuliburuak doan izatea proposatu genuen. Beraiek gure proposamena atzera bota zuten, eta dirurik ez zegoela agertu zuten. Badakizue zenbateko gastua zen? 52.000 euro. Handik hilabete batzutura, Alkate jaunak eta Gobernuak bere kideek erabaki zuten zerutik ateratako udalerriko argazkiengatik dirua ordainduko zela, aurrekonturik gabe. 62.169 euro ordaindu zituzten, inori galdetu gabe eta negozioa "atzamarrera" emanaz. Eta horrelako gauzak salatzea boikota egitea da beraiantzat?

- Eskola Kontseiluekin batera, ikastetxe publikoetan eraikin itxia jartzea eskatzen ari gara, bertan kirola egin ahal izateko. Horrelako azpiegiturarik ez daukan eskualdeko herri bakarra gara. Familiak sinadurak batu ostean, badirudi Gobernu taldeak proiektuarekiko interesa erakutsi duela. Hainbat urte eskaera hori egiten egon eta gero, sinadurak lortu behar izatea penagarria da.
- Bere garaian azaldu genizuen bezala, Izartu programarako diru-laguntza jaso ez duen eskualdeko herri bakarra da Abadiño (1.200.000 euro baino gehiago, 200 milioi pezeta, jaso gabe geratu gara, gure agintarien baldarkeriagatik). Eta hori guztia, esan dizuegun bezala, froga dezakegu. Eta horrelako gauzak azaltzeagatik esaten dute Udalari boikota egiten ari garela, gurpilen artean egurrak sartzen ari garela, etab.
- Goernu taldeak, Alkatea jauna buru zuela, egiten zituen legez kanpoko kontratazioak salatu behar izan genituen Lan Ikuskaritzan. Ikuskariak arrazoia genuela adierazi zuen. Herritarrei laguntzeko jokatzeko zuela horrela esaten du. Hori ez da gizarte-laguntzailearen eta gizarte-ongizate batzordearen egitekoa?
- Eta, amaitzeko, gure proiektu kutuna: Matienako Kultur Etxea, Errota. Kosta zitzaion Alkate jaunari onartzea garai haietan urrundik ere ez zuela pentsatzen leku horretan kultur etxea jar zitekeenik. Ezker Batuko zinegotziak onartu ere ez du egin. Gu Udalera heldu baino lehenagoko data duen eta han kultur etxea jartzea proposatzen duen dokumentu bat aurkeztera gonbidatzen ditugu. Alkate jauna, ABADIÑOKO TALDE INDEPENDINTEKO kideren bat eraikin horretara sartzen denean eraikin publikoa baino ez duela ikusten uste duzu? Edo ez du pentsatuko borroka egiteak eta zu aguantatzeak merezi izan duela?

Udalean proposatu ditugun gauzetako batzuk agertu eta gero (oraindik gauza asko geratzen zaizkigu kontatzeko), Durangoko lehen epaitegian alkatearen eta bere Gobernu taldearen aurka jarri dugun salaketa zertan datzan azalduko dizuegu.

Udala bere "cortijoa" bailitzan kudeatzen jardun dute Alkateak eta bere Gobernu taldeak, egiten eta deusezten, administrazio publikoan haiek nahi duten moduan ibiltzeko aukera balego moduan. Baina Udalean obren esleipenak ezin dira atzamarrera egin diru kopuru jakin bat gainditzen denean; enkantera edo lehiaketara atera behar dira. Era berean, pertsonalaren kontratazioa legearen arabera egin behar da, eta ez lagun bat edo nahi dena kontratatu, aurten udalekuetako monitoreekin egin den bezala. Hala ere, horixe izan da Alkate jaunaren ohiko jokatzeko modua. Arau horiek ez betetzeagatik aurkeztu dugu salaketa, eta hori boikota egitea, oztopoak jartzea eta gurpiletan egurrak sartzea bada, hori egiten jarraituko dugu, gure herrian horrelako jarduerak berriro ez gertatzea gure zereginetako bat dela uste dugulako.

Eta badakizue zein izan den Alkatearen eta bere Gobernu kideen (EA eta Ezker Batua) erantzuna? Udaleko batzorde guztiak bertan behera utzi dituzte: Hirigintza, Kultura, etab. Erabaki horrekin, udalerriko ordezkariaren erdiak baino gehiagok ez daki batzordeetan zertan ari diren, eta hori baino txarragoa, ezin dugu Udalera eraman zuek egunero eskatzen diguzuen.

Egoera honetan Ezker Batuko zinegotzi Jose Luis Perez izaten ari den jarrerak min handia ematen digu. Alkateak bere lagunei mesede egiteko egin dituen delitu jarduerak estaltzen ditu, baina ez hori bakarrik, Gobernu taldeko kide gisa, berak ere delituak egin ditzake. Eta hori guztia langile jatorria daukan alderdi baten ordezkari bezala.

Gure eguneroko ahalegina gogorarazi nahi izan dugu, memoria galtzen duten pertsonak gutako bakoitza bere lekuan jarri ahal izateko. Orain, Gobernuak badauka abantaila bat kontu honetan, guztion dirua erabiltzen duelako, gutxi batzuei laguntzeko. Eta zoritxarrez, beraientzat tarta zatiren bat geratzen bada besteei zer gertatzen zaien bost axola dien jendea badago oraindik. Horik aurrera, bakoitzak bere ondorioak egin ditzala.

Salaketaren harira, Alkateak maiatzaren 4an deklaratzera deitu dute. Informatuta izango zaituztegu.